

**ALKATETZA
DEKRETUA**

2025 000000789

Xedea**2025-02-26(e)ko OSOKO BILKURA** deialdia.**Aurrekariak**

Lehenengoa: 2023ko uztailearen 5eko Udal Osoko Bilkuran osoko bilkuren aldirotasuna finkatzea onartu zen. Aldirotasunaren inguruan, hain zuzen ere, hauxe onartu zen:

“...

LEHENENGOA: Osoko Bilkuren aldirotasuna modu honetan finkatzea, lehentasunez:

Hilero, azken ostegunetan 18etan, salbu eta ekaineko eta uztaileko osoko bilkurak goizez izango direla 8.30tan.

Abuztuan eta abenduan ez da osoko bilkurarik egongo.

BIGARRENA: 2023. urterako lehentasunez erantsitako egutegia onartuko da eta urtean-urtean bozeramaileek adostuko dute egutegia. Dena den, alkateak justifikatutako arrazoiengatik (jai eguna delako, agenda arazoak daudelako, quoruma bermatzeko...) edo bozeramaileek gehiengoz erabakitzearen ondorioz eguna eta/edo ordua alda daiteke.

...”

Bigarrena: 2024ko urriaren 25eko Bozeramaileen Batzarrean saioen 2025. urterako egutegia onartu zen eta horren arabera 2025eko otsailaren 26an ohiko Osoko Bilkura egongo da.

Argudioak

Bakarra: Alkatetzak OSOKO BILKURAKo deialdia egiteko eskumena dauka aipatutako artikuluek gain, legeria honen arabera:

1

**Sinadurea eta data**

: 2025000000789

Data: 21/02/2025

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

- Apirilaren 2ko 7/1985 Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen Legeak, 21.1.c) artikulua
- Azaroaren 28an 2568/1986 Errege Dekretu bidez onartutako Toki Entitateen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiak (AFA) 41.4 artikuluetan xedatutakoa.

Ebazpena

Goian aitatutakoa kontuan hartuta, honako hau ebatzi dot:

LEHENENGOA: OSOKO BILKURA osatzen daberen zinegotziak deitzea ohiko batzarrera.

BIGARRENA: Deialdia Alkatetza Dekretu honen eranskinean agertzen diran zehaztasunen arabera egin eta bertan agertzen dan gai zerrendea onartzea. Ikusi 1. eranskina.

HIRUGARRENA: 1. deialdian quoruma izateko zinegotzi nahikorik egon ezean, batzarra automatikoki egun bi geroago eta ordu berean deitzea 2. deialdian.

LAUGARRENA: Jakinaraztea zinegotzietan asistentzia nahitaezkoa dala, bertaratzea galarazten dauen arrazoi justifikaturik egon ezean.

BOSGARRENA: Jakinaraztea gaurtik aurrera, udal honetako Egoitza Elektronikoa edo Idazkaritzan eskura dagozala gai zerrendako gaiakaz zerikusia daukien espedienteak.



Sinadurea eta data





BATZAR DEIA

Deitutako organoa:	OSOKO BILKURA
Batzarra:	Ohikoa
Deialdia:	1. deialdia
Eguna:	2025-02-26 (Asteazkena)
Ordua:	17:30
Lekua:	Udaletxeko osoko bilkurako areto nagusia
2. deialdia:	2025/03/03 (Astelehena) 17:30

GAI ZERRENDEA

1. - Aurreko akta irakurri eta onartzea: 2025-01-30 OB (01)
2. - Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik daukaten adieraztea.
3. - 2025-2030 aldirako Bermeoko euskara indarberritzeko plan estrategikoa eta kudeaketa planaren oinarriak onartzea.
4. - Gasteizko Luis Aramburu Udalaren Musika Eskola eta Bermeoko Udalaren arteko lan poltsa modu bateratuan kudeatzeko kudeaketa gomendioaren hitzarmena onartzea.
5. - Informazio batzordeetako ordezkariak jasotzeko era aldatzea.
6. - 2024/4.hiruhilabeteko hornitzaileei ordainketen berri ematea.



7. - 2024/4.hiruhilabeteko berankortasun datuen berri ematea.
8. - 2024/4.hiruhilabeteko fakturen berri ematea.
9. - 2025eko 224-661 zenbakidun alkatetza dekretuen berri ematea.
10. - Tokiko Gobernu Batzarreko erabakien berri ematea: 2025eko urtarrilaren 28 eta otsailaren 4ko erabakiak.
11. - Eskari eta itaunak.

Oharra: sinadurea eta data orri-oinan .



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E90012348500X7E7S6O5G5O7

Sinadurea eta data

NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 21/02/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 21/02/2025
12:27:39

: 202500000789
Data: 21/02/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia

